

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ANDOAINGO UDALA

Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea

Akats zuzenketa

Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 30ean hartutako 3. erabakiari jarraiki, Andoaingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko AIU 3-Sarmendi hirigintza-fitxa partikularren erabilera-baldintzen C atalaren zuzenketa onartu da.

Akats bat aurkitu da 2011/06/10 datako 110 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkian Andoaingo Hiri Antolaketa Plan Orokorraren behin betiko onespena eta testu bateratuari buruzkoa, zehazki, AIU 3-Sarmendi hirigintza-fitxa partikularreko erabilera-baldintzen C atalean, bizitegi-erabileraren eraikigarritasun osoa definitzerakoan, sustapen libreari dagokion ehunekoan, eta, beraz, akats hori modu honetan zuzentzen da:

— *Honako hau jartzen duen lekuan:*

Egoitza erabilerako eraikigarritasuna, orotara: 3.950 m²(t).

ET erregimenari lotua -% 20-: 790 m²(t).

Sustapen librekoa -% 60-: 3.160 m²(t).

— *Honako hau jarri behar du:*

Egoitza erabilerako eraikigarritasuna, orotara 3.950 m²(t).

ET erregimenari lotua -% 20-: 790 m²(t).

Sustapen librekoa -% 80-: 3.160 m²(t).

Andoain, 2024ko ekainaren 3a.—Andoni Álvarez Lete, alkatea. (4157)

AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

Urbanismo, Obras, Medio Ambiente y Zona Rural

Corrección de errores

Mediante acuerdo n.º 3 del Pleno de la Corporación de fecha 30 de mayo de 2024 ha sido aprobada la corrección del apartado C de condiciones de uso de la ficha urbanística particular AIU 3-Sarmendi del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain.

Advertido error en el anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 110 de fecha 10/06/2011, referido a la aprobación definitiva y texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Andoain, concretamente en el apartado C de condiciones de uso de la ficha urbanística particular AIU 3-Sarmendi al definir la edificabilidad total del uso residencial, en el porcentaje que corresponde a la promoción libre, por la presente, se procede a su rectificación de la forma que sigue:

— *Donde dice:*

Edificabilidad total uso residencial: 3.950 m²(t).

Vinculada al régimen VT -20 %-: 790 m²(t).

Promoción libre -60 %-: 3.160 m²(t)

— *Debe decir:*

Edificabilidad total uso residencial: 3.950 m²(t).

Vinculada al régimen VT -20 %-: 790 m²(t).

Promoción libre -80 %-: 3.160 m²(t).

Andoain, a 3 de junio de 2024.—El alcalde, Andoni Álvarez Lete. (4157)